

## **5.BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:**

Gure enpresan, garrantzi asko emango diogu komunikazioari, gure salmenta guztiak, bezeroekin dugun harremana eta markaren irudia zuzenean lotuta daude. Gure helburua ez da bakarrik produktua saltzea gure bezeroekin konfiantzazko harremana sortzea ere bada.

Horretarako gurekin komunikatzeko modu desberdinak ahalbidetuko ditugu. Orain, komunikazio banaketari buruz hainbat puntu aipatuko ditut.

### **1.KOMUNIKAZIO KANALAK**

Gaur egun, sare sozialek aukera ematen dute publiko zabala eta gaztea erakartzeko eta marka zabaltzeko. Hemen ere, gure bezeroekin komunikatu ahal gara eta gure zerbitzua ezagutuko dute

Horretarako, hurrengo plataformetan egongo gara:

- **Instagram:** gure produktuen argazki eta bideo publikatzeko eta eguneroko jarduerak eta historiak partekatzeko.
- **TikTok:** edukia dibertigarriaren bidez, publiko gaztearekin konektatzeko eta gure produktuak modu erakargarrian aurkezteko.
- **Facebook:** komunitate zabalago bati heltzeko eta gure albisteak, eskaintzak eta berriak zabaltzeko.
- **Twitter:** gure markaren irudi sendotzeko, berriak azkar zabaltzeko eta bezeroekin elkarrizketa zuzenak izateko.



Sare sozial guztietan **Gs\_produktuak** izenarekin aurkituko gaituzue.

**2.Salmenta kanalak:** Gure enpresan salmenta kanal bakarra izango dugu eta salmenta kanal hau webgune bat izango da.

Webgune ofizial bat sortu dugu Guajesalmentak.eus izenekoa. Gure enpresaren informazio nagusia bertan dugu, produktuen katalogoa, prezioak, eskaera egiteko aukera eta kontaktu-formulario bat ere egongo da.

### **3.Banaketa- kanalak**

Gure enpresan hainbat pertsona izango ditugu produktuak banatzeko. Hainbat kanal banaketa izango ditugu produktuak egiteko, **Inposta** eta **Correos** bezalako enpresa ezagunekin lanean arituko gara, herri bakoitzean entrega-puntuak erabiliz. Horrela, bezeroek aukera izango dute beraien erosketak nahi duten orduan eta lekuan jasotzeko.